

## » TELEGRAMA

**David Bowie** omenduko dute Donostiako Dokan apirilaren 15ean: Los Separatistas, Zea Mays, Sonic Trash eta Diamond Heroes bezalako taldeak ikusteko aukera *STOP* William Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa* Bilboko Arriagan eskainiko dute apirilaren 16an. Sarrerak 7 eta 18 euro artean *STOP* Immigrazioa du ardatz Xuban Intxaustiren *Mensajes de frontera* ikus-entzunezko lanak. Donostiako Ernest Lluch kultur etxean eskainiko dute apirilaren 14an 19:00etan *STOP*

## » DISKOA

## Sustraiak berritzen



Joxi Ubeda



### Neguaren ostein

MIKEL URAKEN

Auto-ekoizpena, 2015

Mikel Uraken musikari santutxuarra.

IÑIGO AZKONA



Mikel Urakenek ahotsa eta gitarra baka-  
rrik erabili ditu bere azken lana graba-  
tzeko, zazpi kantuz osaturiko binilozko  
diskoa. Kantu gordinak eta hunkiga-  
rriak jotzen ditu, gitarrarekin marrazki  
ederrak egiten ditu, eta zintzotasunez  
abesten du, bihotzetik. Bere kantuetan  
samina, ezintasuna eta etsipena suma-  
tzen dira. “Bihotzetik bai, baina batez  
ere, erraietatik abesten dut. Nik uste  
dut norberaren bizipenek baldintzatzen  
gaituztela gure eguneroko bizitzan. Nire  
kasuan, bizipen horiek erabiltzen ditut  
abiapuntu bezala sormen lanak egiteko.  
Gordintasuna zerbait erakargarri bihur-  
tu nahi dut. Lanaren emaitza zintzoa  
izateko, lotuta egon behar da norbera-  
ren izaerarekin”.

Bere kantuak euskal folkaren sustraie-  
tan errotuta daude, baina hortik abiatuta  
bide berriak aurkitzen saiatu da, enbor  
bereko beste adar batzuk. “Zintzotasun  
oso, herri honen sustraiekin konekta-  
tzen saiatu naizela esan dezaket. Era be-  
rean, nire izaera pertsonalaren ezauga-  
rriak (euskaldun berria naiz eta ikuspegi  
musikal ipurterrea daukat) gehitu dira,  
eta *Neguaren ostein* horren emaitza da.  
Beraz, ni eta nire ingurukoaren batuketa  
dela esan dezakegu. Alde batetik, disko  
hau euskal kulturari eskaini nahi izan  
diodan ekarpen xume bezala erditu dut,  
eta bestetik, euskaldun berrien ahaldu-  
ntzea ere islatu nahi izan dut”.

Mikel Urakenek berak sortu ditu doi-  
nuak, eta hitzak idazteko Mikel Vegaren  
laguntza izan du. Grabazioa 2015eko  
uztailean egin zuen Andoaingo Garate  
estudioan. Soinu teknikaria Kaki Arka-  
razo izan da, eta ekoizlea Javi Letamen-  
dia. Diseinua eta argazkiak Asier Garcia  
Azkuek egin ditu.

Diskoa bere kabuz argitaratu du. *Do  
it yourself* (zuk zeuk egin ezazu) pen-  
tsaera erabat barneratuta daukadanez  
ez zitzaidan beste era batez aritzea bur-  
ruratu. Auto-ekoizpena ekonomikoki  
arriskutsua izan daiteke, baina diskoa-  
ren banaketa kontrolatu ahal izatea,  
arazoa baino luxu bat da”.

Mikel Uraken Bilboko Santutxu auzo-  
koa da. Duela hamar bat urte Loan me-  
tal taldean jotzen hasi zen, eta ondoren  
*Folk songs for tormented souls* (2013)  
eta *Omenaldi xumeak* (2014) lanak pla-  
zaratu zituen, *Neguaren ostein* diskoa  
osatu aurretik. ■